3.2 inprimakia

Inprimaki honek hondakin-ur gordinen banakapena eta ezaugarriak biltzen ditu. Inprimaki hau betetzeko, **idatzi letra larriz, eta markatu gurutze batez** dagozkion laukiak. Eman **ahalik eta informazio gehien,** eskaera behar bezala izapidetzeko.

Espediente-zenbakia:	

Espediente-zenbakia izanez gero bakarrik bete behar da.

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

1 Isurketaren karakterizazioa

Hasierako datuak[(i)]

Ur gordinak. Zk.:	Hondakin-ur gordinak HUA batean araziko al dira, azkenik ingurune hartzailera isuri aurretik?[(ii)]	☐Bai
		☐Ez
	Aurreko galderari EZ erantzunez gero, ba al dago proiekturik HUA egiteko?	☐Bai
		☐Ez

Hondakin-uren jatorria hirikoa baldin bada[(iii)]

Hiriko uren fluxua. Zk.:		Industriako hondakin-uren %	

Hondakin-uren jatorria industriala baldin bada[(iv)]

Industria-uren fluxua. Zk.:	

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

Substantzia kutsatzaileen xehetasunak

Parametroa	Eguneko batez besteko balioa
Tenperatura (ºC)	
pH (pH un.)	
Solido esekiak (mg/L)	
OEB_5 (mg O_2/L)	
OEK (mg O_2/L)	
Olioak eta koipeak (mg/L)	
Amonioa (NH_4) (mg NH_4/L)	
Nitratoak (NO_3) (mg NO_3/L)	
Kjeldahl nitrogenoa (mg N/L)	
N, guztira (KNT+ NO_3+ NO_2) (mg N/L)	
Fosforoa, guztira (mg P/L)	
Beste batzuk (zehaztu)	

Bete ezazu 3.2 inprimakiaren taulak, zenbat isurketa adierazten duzun, beste horrenbeste aldiz.

2 Isurketa-adierazpena betetzeko jarraibideak

3.2 inprimakia

Isurketa-baimenak eskatzen dituzten pertsona edo entitate guztiek bete behar dute inprimaki hau, hozte-uren isurketen edo meatze-jardueretatik datozen xukatze-uren isurketen kasuan izan ezik (*). Era berean, ez da beharrezkoa izango inprimaki hau betetzea saneamendu-sistemen gainezkatze-fluxuak soilik dauden kasuetan. (JPHEren 246.2.c) art., eta 459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoa).

A) ISURKETAREN KARAKTERIZAZIOA

OHARRA: Hondakin-ur gordinak dira araztu aurretik edozein giza jardueratatik datozen hainbat gaiz betetako urak. Hondakin-uren araztegi adina ur gordin egongo dira, edo, gutxienez, ur-gordin bat, arazketarik ez badago.

i. Araztegi adina ur gordin daude, edo gutxienez ur gordin bat, araztegirik ez badago. Beraz, dauden ur gordin adina karakterizazio-taula bete behar dira, ur gordinak ondoz ondo zenbatuz, hurrengo inprimakietan identifikatu ahal izateko.
ii. Hondakin-uren araztegi (HUA) batean inolako arazketarik egiten ez bada, hondakin-ur gordinen konposizioa eta isurketarena berberak izango da. Kasu horretan, inprimaki hau betetzerakoan kontuan hartu diren parametro edo substantzia kutsatzaileek eta horien balioek bat etorri behar dute isurketaren karakterizazio orokorrari buruzko 3.4 inprimakian jasotakoekin, eta, hala badagokio, substantzia arriskutsuak dituzten isurketen karakterizazioari buruzko 3.5 inprimakikoekin.
iii. Hondakin-uren jatorria hirikoa edo hirikoarekin pareka daitekeena bada, hondakin-uren araztegiak tratatuko dituen hondakin-uren fluxu guztiak identifikatuko dira, 1.1 inprimakiko A) atalean esleitutako hurrenkera-zenbakien bidez, komaz bereizita. Industriako hondakin-urak dira merkataritza- edo industria-jardueraren bat egiteko erabilitako lokaletatik isuritako hondakin-ur guztiak.
iv. Uren jatorria industriala bada, hondakin-uren araztegiak tratatuko dituen hondakin-uren fluxu guztiak identifikatuko dira, 1.2 inprimakiko B) atalean esleitutako zenbakien bidez, komaz bereizita.